

## BESTELAKO XEDAPENAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 3086

*EBAZPENA, 2014ko ekainaren 27koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinarekin jendaurrean jartzen baitira ondoko izendapenak: Arabako Lurralde Historiko ibaietan (Baia, Ihuda (Ayuda), Ebro, Omecillo-Tumecillo eta Zadorra), Garrantzi Komunitarioko bost Leku (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.*

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2014ko apirilaren 16ko Aginduaren bitartez, zera erabaki da: Arabako Lurralde Historiko ibaietan (Baia, Ihuda (Ayuda), Ebro, Omecillo-Tumecillo eta Zadorra), Garrantzi Komunitarioko bost Leku (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.

Xedapen Orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikularekin eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikularekin bat etorriaz, entzunaldi-izapideetatik pasa behar dira honako hauek: ingurumena babesteko helburu duten administrazioak eta irabazte-asmorik gabeko erakundeak; eta horretaz gain, honako hauek jendaurrean jartzen dira: bost espazio horien izendapenak, lekuetako kartografia mugapenekin, interes komunitariotariko habitat motak, eta izendapenak justifikagarri egiten dituzten animalia eta landare espeziak, horien kontserbazioaren egoerari buruzko balorazioak, kontserbazioko helburuak eta arauak, eta segimendua egiteko programak.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 11. artikuluko 1.d) epigrafean xedatutakoarekin bat etorriaz, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehengoa.– Jendaurrean jartzea honako izendapen hauek: Arabako Lurralde Historiko ibaietan (Baia, Ihuda (Ayuda), Ebro, Omecillo-Tumecillo eta Zadorra), Garrantzi Komunitarioko bost Leku (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea; hain justu ere EHAAn iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2014ko irailaren 5era arte; epe horretan, egoki irizten dien alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Goragoko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoa: [www.euskadi.net/natura2000](http://www.euskadi.net/natura2000), bai EAEko Administrazio Orokorren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, herritarrak atenditzeko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Donostia kalea, 1.

2014ko uztailaren 8a, asteartea

01010 Vitoria-Gasteiz.

Gasteizen, 2014ko ekainaren 27a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.

AMAIA BARREDO MARTÍN ANDREA.